

# II. PLANA

**GASTEIZKO UDALEKO  
ENPLEGU PUBLIKOAREN  
EREMUKO GENERO-  
BERDINTASUNERAKO**

**g**ualdad  
erdintasuna



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## 1.- SARRERA

---

Gasteizko Udaleko 2022-2024 aldirako Enplegu Publikoaren Eremuko Genero-berdintasunerako II. Planari (aurrerantzean II. Plana) forma ematen dioten jardueren proposamena aurkezten da agiri honetan. Horrenbestez, barneko lan-prozesuetan genero-ikuspegia txertatu eta, bidenabar, enplegu publikoan berdintasuna ahalbidetzeko helburuarekin 2012an hasitako lanari jarraipena ematen dio Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen Sailak.

2016an onetsi zen Gasteizko Udaleko 2016-2018 aldirako Enplegu Publikoaren Eremuko Genero-berdintasunerako I. Plana (aurrerantzean I. Plana), hainbat urtez eztabaidatu, adostasunak lortu eta entitate publikoko emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin ondoren. Aurkezpenean azaldu bezala, izaera espezifikoak zuen I. Plan horrek, eta Udalean egiten zen berdintasunaren arloko lehenengo barne-plana izan zen. Gerora landu eta onetsiko ziren hurrengo planetan jarraipena izateko borondatearen sortu zen.

Bi eratako jarduerak biltzen zituen I. Plan horrek, alde batetik etengabeak eta bestetik finalistak. Martxan jartzea eskatzen dute hasieran etengabeko jarduerak, eta jarraipen bat ondoren, denbora-mugarik gabe iraunarazteko asmoz sortuak izaki, eta, horrenbestez, badira lehendik hasitako hainbat lan-prozesu, II. Plan honetan jarraipena izango dutenak.

Jarduera finalistak, berriz, epe laburrean burutu daitezkeen ekintzak dira, hau da, prozesu baten barruan sartuta ez dauden ekintzak; hortaz, denbora-muga bat dutenak. Era horretako jarduerak izango dira II. Plan honetako berritasunak, I. Planean jasotako gehienak garatu eta burutu baitziren.

Oro har, bi mugarri nagusi ezarri zituen I. Planak. Alde batetik, Giza Baliabideen Sailari atxikitako berdintasun-agente bat dago 2016az geroztik, eta bera arduratzen da plana gauzatzeko bidea urratzeaz eta, orobat, hainbat esparrutako ordezkariak osatutako Berdintasun Batzorde Paritarioa dinamizatu eta bilera-deiak egiteaz.

Bestalde, Generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlanak<sup>1</sup> —I. Planean jasotako jarduera espezifiko eta finalista— erakutsi zuen badela alderik gizona eta emakumezkoen soldaten

---

<sup>1</sup> Generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlana. Gasteizko Udala. 2018

artean, eta hainbat jarduera-proposamen jaso zituen, zein oso aintzakotzat hartu baitira II. Plan hau idazteko orduan.

Gainera, egungo arau-markoa aintzakotzat hartu beharra dago, baita kontzeptu-marko zabalagoa eta gainerako udal jarduera eta planekiko ezinbesteko lotura ere.

Testuinguru horretan, ikuspegi inklusiboagoa ageri du II. Planak; ‘emakumeak’ hartzen dira subjektu politikotzat, berdintasunaren aldeko barne jarduerara ere zabaltzen du ikuspegi hori, eta orobat hartzen ditu aintzat generoan arloko diskriminazio-egoerei eta indarkeria matxistari aurre egin behar dieten beste pertsona batzuk ere.

Genero-berdintasuna lortzera eta sexu- eta genero-aniztasunaren inklusioan aurrera egitera zuzendutako helburuei eusten zaie II. Plan honetan, eta giza eskubideen ikuspegitik lan egiten jarraitzen da. Enplegu publikoari eragiten dioten lan-prozesuetan berdintasuna txertatzera zuzendutako jarduera sorta bat jasotzen du, eta genero-kontuekin zerikusia duten desberdintasun eta diskriminazioei aurre egiteko ekintza positiboak proposatzen, abiapuntuko egoera diskriminatzaileak apurka-apurka desagerrarazte aldera. Zentzu horretan —eta Gasteizko Udaleko HARA! Genero Berdintasunerako IV. Planaren ildo beretik—, genero-berdintasunerako plantzat jotzen da II. Plan hau; izan ere, giza eskubideen ikuspegitik, sexu- eta genero-aniztasunaren inklusiorako bidean aurrera egin nahi duen udal-politika publikoaren ispilu dugu, eta orobat heltzen dio LGTBI pertsonen errealitatea aintzat hartzeko erronkari.

Planaren egitura bera da II. Plan honen beste berritasun bat. Alde batetik, bost ildo estrategikotan biltzen dira hurrengo hiru urteetarako jarduerak. Hainbat arrazoiri erantzuten dio erabaki horrek. Batetik, gehiago moldatu da gertueneko administrazioen berdintasun-planetara, hau da, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planera<sup>2</sup>, Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planera<sup>3</sup> eta Gasteizko Udalaren Genero Berdintasunerako IV. Planera<sup>4</sup>. Bestetik, aurreko planean baino ildo estrategiko gutxiagotan bildu dira helburuak eta jarduerak, helburu orokorraren ikuspegi globalagoa ematen baitu horrek, eta hobeto identifikatzen baitira, hartara, landu beharreko zutabeak.

Azkenik, II. Plana lantzeko orduan, oso kontuan izan da hurrengo urteetarako —batez ere 2019 eta 2020rako— aurreikusitako enplegu-eskaintza publikoa. Bi ekitaldi horietan, Gasteizko Udaleko sail eta zerbitzu ia guztiei eragingo dieten hainbat hautaketa-prozesu egitea aurreikusita dago, eta II. Planean bildu diren jardueretako askok badute zerikusirik errealitate horrekin.

---

<sup>2</sup> EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana. 2018ko maiatzaren 22a. Emakunde

<sup>3</sup> Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana, 2016-2020. Arabako Foru Aldundia

<sup>4</sup> HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana (2018-2021)

## 2.- ARAU-MARKOA ETA DOKUMENTAZIOA

---

II. Plana lantzeko orduan aintzat hartu den arau-markoa eta baliatu den dokumentazioa azaltzen dira atal honetan, eta udaleko, autonomia-erkidegoko, estatuko, Europako eta nazioarteko testu nagusiak nabarmentzen.

<i>Udal-esparrua</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• HARA! Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana. 2018-2021</li><li>• Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena. 2006</li><li>• Gasteizko LGTBI biztanleriaren errealitateen diagnostikoa. 2017</li></ul>
<i>Foru-esparrua</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana. 2016-2020</li></ul>
<i>Autonomia-esparrua</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. 2018-2021</li><li>• Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legea.</li><li>• 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.</li><li>• Gida: “Enpresetan eta beste entitate batzuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko tresna”. Emakunde. 2017</li><li>• Estrategia eta ekintza-plan eragilea, Euskadin soldata-arrakala murrizteko. 2018</li></ul>
<i>Estatu-esparrua</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.</li><li>• 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa.</li><li>• 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.</li></ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren kontrako Estatu-ituna, 2017ko abenduan onetsia.</li> <li>• 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.</li> <li>• Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua, enpleguan eta lanbidean emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoa.</li> </ul>
<i>Europako esparrua</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoa. 2016-2019</li> <li>• Lunacek txostena, homofobiaren eta sexu-orientazio edo genero-identitateagatiko diskriminazioaren kontrako Europar Batasunaren bide-orriari buruzkoa. 2014</li> <li>• Istanbulerako hitzarmena, emakumeenganako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Espainiak 2014an berretsia).</li> <li>• Homofobiaren kontrako Europako liburu zuria. Sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen arloko berdintasun-politika lokalak. 2011</li> </ul>
<i>Nazioartea</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. NBE. 2015</li> <li>• Yogyakarta printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak. 2006</li> <li>• 17/19 ebazpena, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa. 2011.</li> <li>• Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra (Beijing, 1995) eta Beijinggo adierazpena eta ekintza-plataforma, New Yorken 2015ean berrikusi eta berretsia (Pekin+20).</li> </ul>

### 3.- DIAGNOSTIKOA ETA AURREKARIAK

---

II. Planari ekiteko orduan, 2018ko lehen seihilekoan egin zen I. Planaren ebaluaziotik ateratako alderdi nagusiak kontuan izan dira, baita urte horren hasieran argitaratu zen Gasteizko Udaleko generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlana ere.

I. Planaren ebaluazioak agerian utzi zuen hasiera batean bi urtean garatzea aurreikusitako plan hori asmo handikoa izan zela. Bi urte horietan, I. Planean aurreikusitako jarduera gehienak bukatu ziren, edo abian jarri. Abian jarritako prozesu nagusiak hauek izan ziren: berdintasun-bloga, hautaketa-prozesuetako partaidetza, langileen prestakuntza eta soldata-arrakalari buruzko azterlana.

Udal intraneteko berdintasun-bloga zabalkunderako baliatzen da —albisteak, ikastaroak, kontsulta-materialak eta beste—, eta orobat ematen da bertan kontziliazio-neurriei buruzko informazioa, langileek kontsultatzerik izan dezaten, horrekin zerikusia duten ebazpenen zerrenda argitaratzeaz batera.

Berdintasun-agentea eguneroko lanean inplikatu da, Giza Baliabideen Saileko diziplina anitzeko taldeetan parte hartuz, eta zeharkakotasuna landu du, erakundean berdintasun-printzipioa ezartzeko estrategietako bat den aldetik.

Enplegu publikoan sartzeko nahiz gora egiteko prozesuak hainbat tresnaren bitartez berrikusi dira, Giza Baliabideen Sailari atxikitako berdintasun-agentearen figura berriari esker: hizkera aztertu da, aholkularitza eskaini, txostenak egin eta abar, guztia ere prozesu horietan berdintasun-printzipioa aintzat har dadin, hobeto aplikatu dadin. Lehen plan hori taxutu zenean, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak eta beste arau batzuek berritze-tasaren eta kontratazio berrien inguruan ezartzen zituzten mugak oso murriztaileak ziren, hainbat lerrotan adierazten zenez. Gaur egun, aldatu egin da egoera, eta bestelako aurreikuspenak daude. Hori dela eta, jardun handikoa bizi du Giza Baliabideen Sailak, hainbat hautaketa-prozesutan murgilduta baitago, eta, hori dela eta, enplegu publikoan sartzearekin eta hori sustatzearekin zerikusia duten I. Planeko jarduerak berebiziko garrantzi hartu dute, onetsi zenean aurreikusi ez bezalakoa, eta handitu egin da lan-bolumena.

Kontziliazio-neurriei dagokienez, aurreikusitako jardueretako hainbat inplementatu dira, ebazpenen bitartez.

Langile guztiei zuzendutako berdintasunaren arloko oinarrizko prestakuntza eskaintzen jarraitzen da. Prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-ikastaroak ematen dira, talde heterogeneoetan, hainbat lanpostutan diharduten pertsonak bilduz.

Hasi ez diren jardueri gagozkielarik, esan daiteke horien inplementazioan eragina izaten ari diren faktore nagusiak direla, batetik, jardueren bolumen handia —guztira 89, bakoitza lan-karga desberdinarekin—, eta bestetik, berriz, gauzatze-aldiak baldintzatzen dituzten barne-prozesuak, aurreratu edo atzeratu egiten baitituzte horiek jarduerak, enplegu publikoaren esparruko egungo koiunturako aldaketak direla eta. Jarduera horiei buruzko hausnarketa egin beharra dago, eta, behar izanez gero, birformulatu egin behar dira, benetako lan-karga eta helburuak betetzeko eraginkorrek diren baloratu.

I. Planeko ‘Ordainsariak’ izeneko 5. ildoan jasotako jarduera bakarra Generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlana izan zen. Nabarmendu beharra dago giza baliabide eta baliabide material propioekin egin zela, eta datu kuantitatiboen bilketan inplikaturako arloko koordinazioa eta jarrera funtsezkoak eta erabakigarriak izan zirela. Azterlan xehatu bat izan zen emaitza, Gasteizko Udalak sail guztietan egindako kontratuak oro aztertu baitziren bertan.

II. Plana egiteko orduan erabakigarriak izan diren ondorio hauek atera ziren azterketa horretan:


- Emakumeen presentziaren bilakaera positiboa da Gasteizko Udaleko langileen artean; izan ere, emakumeen ehunekoak gora egin du kategoria guztietan urteetan zehar, baina behin-behinekotasuna askoz handiagoa da emakumeen artean.
- Oro har, gizon baino emakume gehiago dago Gasteizko Udalean lanean, baina emakumeek ordu gutxiago egiten dituzte lanean, eta gutxiago kobratzen dute orduko.
- Erantzukizun handieneko kategorietako lanpostuetan, soldata gordinen antzematen da alde, ez horrenbeste orduko soldatan. Baliteke alderdi hori lotuta egotea emakumeen kasuan lanaldiak eta kontratuen indarraldia laburragoak izatearekin.

## **Ondorioak**

- emakumeek batez beste gizonen baino % 15 ordu gutxiago sartzen dute.
- urteko % 24 diru-sarrera gordin txikiagoa dute —% 20 soldata arrunta kontuan hartuta—; batez beste orduko jasotzen dituzten sarrera gordinak % 8 txikiagoak dira, eta orduko sarrera arruntak, % 6 txikiagoak gizonenak baino.


Bi tresna horiek edukitzeaz gain —I. Planaren ebaluazioa eta Generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlana—, udal-plantillaren datuen diagnosi-azterketa egin zen 2020an:

Guztira, 3.522 pertsonak lan egiten dute Gasteizko Udalaren administrazio lokalean, eta, horietatik, 2.148 emakumeak dira (% 60). Gizonen batez besteko adina 44 urtekoa da; emakumeena, berriz, 43.6 urtekoa.




Gizarte Politiken Saila da langile gehien dituen; 749 pertsonak lan egiten dute bertan, eta 645 emakumeak dira (% 84). Sailik feminizatuena da, hau da, langileen artean emakume gehien dagoen saila, bai zenbaki absolutuetan, bai ehunekoetan. Sexuaren arabera, Herritarren Segurtasunaren Saila eta Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saila dira langileen artean emakume gutxien dagoen sailak —% 17.5 eta % 38.7, hurrenez hurren—, eta, horrenbestez, sail maskulinizatuena dira. Nolabaiteko segregazio horizontala hautematen da, bada.

### Udaleko plantilla Sailen arabera






Guztira, 1.328 langile dira karrerako funtzionario, eta, horietatik, % 46.8 emakumeak. Ez da ahaztu behar toki-administrazioako plantilla osoaren ia % 60 emakumeak direla, eta, beraz, alde hori esanguratsua da, agerian uzten baitu bitarteko kontratuak dituzten emakumeen kopurua handiagoa dela.




Gizonen eta emakumeen presentzia titulazio-taldearen arabera aztertuz gero, segregazio bertikala ageri da. Emakumeen kasuan, D. Gizonen kasuan, C eta D.

### Plantillaren banaketa tituluaren arabera



### UDALEKO PLANTILLA SEXUAREN ETA TITULAZIOAREN ARABERA




Erantzukizun-funtzioari dagokionez, 'menpekoena' delakoa da langile gehien duena, guztira 1.531, eta horietatik % 69.9 emakumeak dira. Katetoria hori da ohikoena, bi sexuetan.

Emakumeak gehiengo dira administrarien kategorian (% 86), eta, ondoren, tarteko erantzukizunaren eta kudeaketaren kategorian (% 71.8). Aitzitik, emakumeak gutxiengo dira herritarren segurtasunean (% 17.2) eta tarteko arduradunen kategorian, % 29.8 baino ez baitira.


Segregazio horizontala dagoela ikusten da, oraindik ere presente baitaude estereotipo sexistak plantillaren osaeran. Bestalde, tarteko arduradunen artean gehiengo dira, eta zuzendaritza-karguetan orekatua ageri da ehunekoak, nahiz eta ez den ahaztu behar emakumeak plantilla osoaren % 60 direla.

#### Udal plantilla sexuaren eta ardura funtzioaren arabera



Bestalde, ordainsari-maila edo destino-osagarrietan banatzen da plantilla, 11tik 30era arteko mailetan multzokatuta. Oro har, destino-osagarririk ohikoenak 19 eta 11 dira, eta maila horietan % 47.1 eta % 73.4, hurrenez hurren, emakumeak dira. Izatez, gizonen destino-osagarririk ohikoena 19 da, eta emakumeena, aldiz, 11.

**Sexu arteko plantillaren banaketa ordainsari mailaren arabera**




**Udaleko plantilla ordainsari mailaren arabera**




Nolanahi ere, informaziorik gehien ematen digun datua hau da: emakumeen erdia 15etik beherako ordainsari-mailetan daude; aitzitik, gizonen erdiaren ordainsari-maila 18 artekoa da.


**Gizonen ordainsari maila (ohikoentik ezohikoenetara)**



**Emakumeen ordainsari maila (ohikoenetatik ezohikoenetara)**




Langile gehienek % 100eko lanaldi osoarekin lan egiten dute —2.529 pertsona, guztira—, eta horietatik % 57 emakumeak dira. Baina datu deigarria hau da: lanaldi partzialarekin lan egiten duten gizonak % 15 dira, eta, aldiz, askoz handiagoa da portzentaje hori emakumeen artean, % 30ek ez baitute lanaldi osorik. Era guztietako lanaldi partzialetan, oso nabarmena da aldea, % 75eko lanaldiaren kasuan izan ezik, hor orekatuago baitago kontua.



## Udal langileriaren lanaldi murrizketak

2020ko bigarren hiruhilekoko datuak



#### 4.- ENPLEGU PUBLIKOAREN EREMUKO GENERO-BERDINTASUNERAKO II. PLANA.

---

##### PLANAREN XEDEA

Barruko lan-prozesuak orientatzea da II. Planaren xedea, 2022-2024 aldian bultzatzen diren politika eta neurriek eragin positiboa izan dezaten, berdintasunari dagokionez, enplegu publikoaren arloan eta entitatean lan egiten duten pertsonen arteko harremanetan, beren generoa gorabehera.

##### FUNTSEZKO PRINTZIPIOAK

Langile guztien eskubideen bermearen ildotik, lan-harremanak bidezkoagoak, ekitatiboagoak eta sexu- edo genero-arrazoiengatiko diskriminaziorik gabeak izan daitezen lagunduko da II. Planarekin. Ikuspegi hori kontuan izanik, I. Planaren printzipio gidariak gogora ekarriko ditugu. Izan ere, berberak dira II. Planerako, eta, funtsean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Gizon eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoan oinarrituta daude.

*<sup>5</sup>Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, Euskadiko botere publikoen jardura arautu eta gidatu behar duten printzipio orokorrak hauek dira:*

*1. Tratu-berdintasuna. Legeak debekatu egiten du genero-diskriminazio oro, zuzenekoa nahiz zeharkakoa izan.*

*2. Aukera-berdintasuna. Legeak ezartzen duenez, botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituzte berdintasunaren printzipioa bermatzeko eta emakumeen eta gizonen eskubideak garatzeko.*

*3. Dibertsitatea eta desberdintasuna errespetatzea. Azpimarratzen denez, ezinbestekoa da beharrezkoak diren bitartekoak jartzea, eta berdintasunaren aldeko prozesua gauzatzeko orduan errespetatu daitezela emakumeen eta gizonen arteko dibertsitatea eta desberdintasuna eta, halaber, emakumeen kolektiboaren baitan eta gizonen kolektiboaren baitan daudenak ere.*

*4. Genero-ikuspegia barneratzea. Ezinbestekoa da politika publiko guztiek diskriminazioa eta genero-desberdintasuna dagoela sistematikoki onartzea.*

*5. Ekintza positiboa. Egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo gutxitzeko xedea duten aldi baterako neurri zehatzak hartzea beharrezkoa dela azpimarratzen da.*

---

<sup>5</sup> Gasteizko Udalean enplegu publikoaren alorrean genero-berdintasuna lortzeko I. planetik hartua. 2016-2018

6. Rolak eta genero-estereotipoak ezabatzea. Botere publikoek ezabatu egin behar dituzte rolak eta genero-estereotipoak, baita lanaren sexu-banaketarekin zerikusia dutenak ere.

7. Ordezkaritza orekatua. Erabakiak hartzeko orduan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira. Horri begira, legeak dioenaren arabera, bi sexu-etako bakoitzak gutxienez % 40ko presentzia duenean jotzen da presentzia orekatutzat.

8. Berdintasunaren alorreko jardueretan elkarlanean eta koordinatuta jokatu behar da, jarduera eraginkorragoa eta onuragarriagoa izan dadin.

Berdintasunerako 2/2005 Legeak ezarritako printzipio hauez gain, Berdintasunerako Lege Organikoak 14. artikuluan ezartzen duenez, ondorengo printzipioek ere gidatuko dute botere publikoen jarduera:

9. Ezabatu egin behar da emakumeen aurkako indarkeria oro eta sexu-jazarpen eta jazarpen sexista edo sexuagatiko jazarpen oro.

10. Amatasuna babestu behar da, haurdunaldiak, erditzeak eta edoskitzeak dituzten ondorioetan arreta berezia jarri.

11. Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukizunak partekatuz bateragarri egitea.

12. Administrazio alorrean hizkuntzaren erabilera ez-sexista ezarri behar da.

13. Azterlanak eta estatistikak berdintasunaren printzipioaren arabera egokitu behar dira.

14. Berdintasunaren printzipioa partikularren arteko harremanetan.

15. Berdintasunaren alorreko irizpide orokor guztiak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzak-politikara hedatu behar dira.

Printzipio horiez gain, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean ezarritako printzipioak eta bermeak ere oso kontuan izango dira II. Plan honetan.

II. Plana osatzen duten ildo estrategikoek modu integratuan jasotzen dituzte Emakundetik transmititzen diren balioak eta lortu nahi dituen aldaketa eraldatzaileak. Printzipio eta berme horiek zerrendatzen dira ondoren, II. Planaren ildo estrategikoetan berariaz lantzen diren balioak baitira, toki-administrazioko langileen barne-jarduerara eta berdintasunezko lan-harreman eta -baldintzak lortzera bideratuta daudenez gero.

Printzipio eta berme hauek jasotzen ditu Emakundek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean:



<b>PRINTZIOAK</b>	<b>BERMEAK</b>
➤ Paradigma feminista	➤ Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko benetako konpromiso politikoa.
➤ Genero-ikuspegia	➤ Beharrezko aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak berdintasun-politika publikoen esku jartzea.
➤ Intersekzionalitatea	➤ Gardentasun-politika eta herritarrei kontu ematea, diru publikoaren bitartez berdintasunari nola laguntzen zaion.
➤ Emakumeen ahalduntzea	➤ Emakume- eta herri-mugimenduek, baita eragile ekonomiko eta sozialek ere, politiken garapenean parte hartzea eta hitz egitea, parte hartzeko eredu demokratikoago batetik, halako moldez non haien ekarpenak aintzat hartuko diren eta eragina izango duten.
➤ Giza garapen iraunkorra	➤ Erakunde guztiek eta horiek osatzen dituzten sailek erantzunkidetasunez jokatu eta laguntzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera.

Gasteizko Udalak, HARA! Berdintasun Planean, printzipio hauek jasotzen ditu hirirako, zenbaitetan bat baitatoz Emakunderenekin:

• Paradigma feminista
• Behar adinako arreta
• Genero- eta intersekzio-ikuspegia
• Partaidetza eta eragina
• Gardentasuna
• Berdintasun-politiken iraunkortasuna

## 5.- PROZESUA LANDU ETA GARATZEA

---

### APLIKAZIO-EREMUA

Berdintasunerako II. Barne Planeko helburu eta neurriak udal langileei dagozkie, berariaz, eta ez zaizkie aplikatzen udal erakunde publiko eta sozietate publikoetako langileei eta horien enplegu-baldintzei.

### SAIL BULTZATZAILEA

Giza Baliabideen Saila da plana bultzatu, koordinatu eta ebaluatuko duen saila, enplegu publikoaren esparruan eta ez bestetan zentratutako plan bat izaki.

Nolanahi ere, Berdintasunerako Zerbitzuaren laguntza izango da, baita ordezkariak sindikala duten sindikatu etako ordezkariak parte hartzen duten Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzorde Paritarioarena ere.

### PRESTAKUNTZA-PROZESUA

Berdintasunerako II. Barne Planaren faseak aldi hauetan garatuko dira:

Lantzea: 2018-2021

Ezartzea: 2022-2024

Ebaluazioa: 2025

2012ko uztailaren 10ean eratu zen Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Batzorde Paritarioa, Giza Baliabideen Sailak bultzatu eta koordinatuta. Batzorde horrek hainbat bilera egin zituen I. Plana idazteko, bertan sartu beharreko alderdi guztiak xehetasunez aztertu ondoren, eta jarduera-ildo, helburu eta jarduera batzuk definitu ziren.

2018ko irailaren 18an egindako bileran, II. Plan hau idazteko lehenengoa idazteko erabilitako metodologia bera baliatzea erabaki zuen batzorde horrek. Dokumentu hau lantzen hasteko kontuan izan ziren, eta aztertu, ordura arte garatutako ekintzek emandako informazioa, I. Planaren ebaluazioa, Generoen arteko soldata-arrakalari buruzko azterlan eta horren diagnosi-analisia.

Informazio hori abiapuntutzat hartuta, aurreko jarduerak aztertu eta helburu eta jarduera berriak proposatzen diren bi lan-dokumentu aurkeztu zitzaizkion batzorde paritarioari. Dokumentu horiek Giza Baliabideen Sailean aztertu eta osatu ziren, zerbitzuetako arduradunekin batera. 2018ko azken hiruhilekoan hasi eta 2019ko apirilean bukatu, hainbat bileratan aztertu eta eztabaidatu ziren lan-dokumentu horiek. Batzorde paritarioko kideek egindako proposamenak eta oharrak txertatu ondoren, dokumentu-proposamen bat idatzi zuen berdintasun-agentek, kanpoko laguntza teknikoarekin, eta sindikatu-ordezkariekin negoziatu zen hori.

Gerora, Gasteizko Udaleko Enplegu Publikoaren Eremuko Genero-berdintasunerako II. Planaren (2022-2024) behin betiko proposamena landu zen, eta Udaleko Gobernu Batzarrak 2022ko urtarrilaren 28an onetsi zuen.

Berdintasunerako II. Barne Plana martxan jarri eta ezartzeko ezinbestekoa da lankidetzaren eta koordinazio-ahalegin handia egitea, eraginkorragoa izango baita bertan egiten den planteamendua esku hartzen duten egitura eta eragileen artean lankidetzaren eta koordinazioa ahalbidetuko duten sinergiak sortzen diren neurrian.

Plana ezartzeko, bada, ezinbestekoa da komunikazioan eta barne-partaidetzan oinarritutako lan-prozesu bat. Horrek, helburuak lortzen laguntzeaz gain, eragileek eta udal plantillak berezkoak dituzten gaitan parte hartzea ere ekarriko du berekin; besteak beste, erakundea bera eta beren lan-baldintzak berdintasun-printzipiora hobeto egokitzeari dagozkionetan. Eta, horrela, Berdintasunerako II. Barne Planaren ezarpenaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren fase guztietan kontuan hartu beharreko lan-printzipioak bilakatuko dira komunikazioa eta partaidetza.

Helburuak erdiesteko orduan eraginkortasuna izateak badu loturarik ezarpen-fasearen jarraipen eta hobekuntzarekin, eta horrexegatik, Berdintasunerako II. Barne Planaren kudeaketa-ereduaren parte da jarraipen hori, baita ebaluazio-eredua ere, eta hala, ezarpena hasten den momentutik diseinatu eta jarri da abian, Berdintasunerako II. Barne Planaren parte izanik.

## 6.- JARDUERA-PLANA. ILDO ESTRATEGIKOAK

---

Bost jarduera-eremutako hainbat kontu jorratzen dituzten bost ildo estrategikotan bildu dira II. Plan honetako neurriak eta ekintzak. Ildo estrategikoetako bakoitza helburu orokor batzuen inguruan egituratzen da, eta horien haritik hainbat jarduera espezifiko zehazten dira. Era berean, jarduera bakoitza sail bati edo batzuei lotuta dago, eta horiek izango dira neurria garatzeaz arduratuko direnak. Jardueretako bakoitzean deskribatzen diren adierazleek neurri bakoitzaren magnitudea ulertzen lagunduko dute, eta, aldi berean, datuak sistematizatzen, II. Planaren ebaluazioari begira.

Bestalde, esan beharra dago etengabeko jarduerak eta jarduera finalistak jasotzen direla II. Planean. Beraz, etengabeko jardueren kasuan, jarduera abian jartzeari dagokio lehenengo urtea, luzatu egingo baita hurrengoetan. Jarduera finalistei dagokienez, berriz, ekintza jakin bati ekiten zaion eta hura garatzen den urteari dagokio gauzatze-urtea.

Jarraipenean eta ebaluazioan adieraziko da, xeheki, jarduera bakoitzaren garapen-maila, eta orobat zehaztuko zein jarduerak ekarri duten berekin prozesu bati ekitea eta zein jarduera burutu diren, ekintza zehatzagoak izaki.

Honela egituratuko da II. Plana:

- **1. ILDO ESTRATEGIKOA. ORGANIZAZIOAREN KULTURA.** Ildo honetan, toki-administrazioaren barruan antolakuntza berdinzaleagoaren aldeko kultura sustatzera zuzendutako jarduerak sartzen dira: informazioa, prestakuntza, sentsibilizazioa, komunikazioa, partaidetza, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera inklusiboa, azterlan eta estatistikak berdintasun-printzipiora egokitzea.

- **2. ILDO ESTRATEGIKOA. ENPLEGU PUBLIKORAKO SARBIDEA, BARNE-SUSTAPENA ETA KARRERA PROFESIONALA GARATZEA.** Ildo honetan, enplegu publikoan sartzeko, gora egiteko nahiz maila estrategiko eta taktikoko lanpostuetara sartzeko orduan aukera-berdintasuna bermatzera zuzendutako jarduerak bildu dira. Eta, orobat, enplegu publikoarekin zerikusia duten organoetan gizon eta emakumeen presentzia orekatua bermatzera zuzenduak.

- **3. ILDO ESTRATEGIKOA. LANPOSTUEN ZERRENDIA ETA ORDAINSARIAK.** Ildo honetan, lanpostuen zerrendan —baita ordainsarrietan ere— berdintasun-printzipioa bermatzera zuzendutako jarduerak jaso dira.

- **4. ILDO ESTRATEGIKOA. LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA.** Ildo honetan, laneko osasunaren eta segurtasunaren eremuan dauden desberdintasunak desagerraraztera zuzendutako jarduerak bildu dira. Kontuan hartzen da, era berean, Lan- eta sexu- jazarpenaren eta jazarpen sexistaren edo sexu-arrazoizkoaren eta genero-identitate eta adierazpenegatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jardute-protokoloa, eta arreta berezia eskaintzen zaie indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei.

- **5. ILDO ESTRATEGIKOA. KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ETA KONTZILIAZIO-NEURRIAK.** Ildo honetan, langileen kontziliazioa erraztera zuzendutako jarduerak bildu dira, zaintzaren garrantzia nabarmenduz.

Ondoren, banan-banan aurkezten dira ildo estrategikoak, esku-hartzearen esparrua bere testuinguruan jarri, eta helburuak eta jarduerak zerrendatzen.

Emakundek dioen bezala, *“berdintasunean aurrera egiteko, organizazioaren kultura aldatu behar da: soilik ekoizpena kontuan hartzeari utzi behar zaio, eta pertsonak eta haien errealitate desberdinak ere hartu behar dira aintzat”*<sup>6</sup>. Hau da, garrantzitsua da erakundea osatzen duten pertsonak nahikoa informazio eta prestakuntza edukitzea, egitura bera eta pertsonen arteko harremanak aldatzen joan ahal izateko, bizitza, zaintza eta aniztasuna aintzat hartuko diren eredu inklusiboago, berdinzaleago bat lortzeko. Horretarako, era berean da beharrezkoa aukera-berdintasuna sustatzea enplegu publikoan.

Zentzu horretan, denik eta tresnarik baliagarriena izango da II. Plana, Giza Baliabideen Saileko berdintasun-agenteak jarduerak sustatu eta garatzerik izan dezan; funtsean, enplegu publikoan jada martxan dauden prozesuetan eragiteko, eta, bidenabar, teknikariei laguntza emateko, apurka-apurka genero-ikuspegia, zeharka, prozedura guztietan integratu dezaten, horiek edonolakoak direlarik ere.

Hain zuzen ere, “Organizazioaren kultura” deritzo II. Planaren lehen ildo estrategiko honi, bertan bildu baitira komunikazioarekin, informazioarekin eta prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak, baita erakundean lan egiten duten guztiak sensibilizatzea eta lan-prozesuan berdintasuna txerta dezaten haien partaidetzara sustatzera zuzendutakoak ere. Prestakuntza-prozesuei dagokienez, badute loturarik HARA! Genero Berdintasunerako IV. Planarekin. Izan ere, organizazioaren kulturaren aldakuntza sustatzeko helburua bi planetan dago jasota.

Hortaz, II. Planean ere sartu dira hizkuntzaren eta irudiaren erabilera inklusiboa sustatzeko jarduerak, baita berdintasun-printzipiora egokitutako azterlan eta estatistikak egitea ere, etorkizunera begira antzeman daitezkeen generoan oinarritutako desberdintasunak ezabatzeko ekintzak diseinatzeke funtsezko datuak eskainiko baitituzte.

Bost helburu orokorren inguruan egituratzen da lehen ildo estrategiko hau, eta berriazko jarduerak gauzatzen:

### **1.1 helburua. Giza Baliabideen Saileko berdintasunerako atala edo egitura sendotzea:**

**1.1.1. jarduera.** Lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean berdintasun-planei buruzko artikulua bat sartzea, eta beste bat berdintasunaren sustapenari buruzkoa.

**1.1.2. jarduera.** II. Plana ezartzeko prozesua —Giza Baliabideen Saileko berdintasun-agentea dela medio— aurrera eramateko beharrezko diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea, hartara bertan jasotako konpromisoak gauzatzerik izan dadin.

### **1.2 helburua. Plana dela eta, komunikazio- eta partaidetza-bideak ezartzea udal plantillarekin.**

**1.2.1. jarduera.** Berdintasun-bloga mantentzea, informazioa aldi-aldi eguneratuz eta lehendik eskaintzen diren edukiak berrikusi eta hobetuz.

**1.2.2. jarduera.** Zabalkunde-kanpainak egitea, udal intraneta erabiltzeko modurik ez duten kolektiboak kontuan hartuz eta informazioa langile guztiengana iristen dela bermatuz.

<sup>6</sup> Enpresetan eta beste entitate batzuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko tresna. Entitate publikoetan eta pribatuatan berdintasuna sustatzeko kudeaketa. Emakunde, 2017.

1.2.3. jarduera. II. Planean jasotako alderdien antena hartzaile eta igorle izango diren pertsonen sarea sortzea, sailen artekoa.

### **1.3 helburua. Udal langileak berdintasunaren arloan gaitzea, organizazioaren kulturaren aldakuntza sustatzeko.**

**1.3.1. jarduera.** Udal langile guztiei genero-berdintasunaren arloko oinarrizko eta nahitaezko prestakuntza ematea.

**1.3.2. jarduera.** Lanposturako egoki diren prestakuntza-ekintzak aztertu eta gauzatzea.

**1.3.3. jarduera.** Gizonen zuzendutako berdintasunaren arloko prestakuntza-ekintzak egitea, Udaltzaingoan.

**1.3.4. jarduera.** II. Planaren jarraipenari lotutako Berdintasun Batzorde Paritarioan parte hartzen duten pertsonak berdintasunaren arloan gaitzea.

**1.3.5. jarduera.** Udal langileei prestakuntza eskaintzeaz arduratzen diren langileei zuzendutako gida didaktiko bat lantzea, non udal prestakuntzan genero-ikuspegia integratzeko beharrezko diren jarraibideak jasoko baitira —ikastaroetan eta bertan ematen den materialean hizkera inklusiboa erabiltzea, sexuaren arabera bereizitako datuak ematea eta abar—, Gasteizko Udalak egiten duen komunikazioan hizkuntzaren erabilera sexista izan ez dadin Berdintasun Zerbitzuak landutako jarraibidea oinarritzat hartuta. Gida hori prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten guztiei banatzea.

**1.3.6. jarduera.** Udal plantillako prestakuntza-arrakalaren analisia, desberdintasunak antzeman eta berdintasuna sustatzeko mekanismoak ezartzeko.

### **1.4 helburua. Giza Baliabideen Sailaren prozesuetan, estatistika eta azterlanak berdintasun-printzipiora egokitzea:**

**1.4.1. jarduera.** Hautaketa-prozesuen jarraipena egiteko aukera emango duen informazio-sistema bat ezartzea, prozesuaren fase guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak lortze aldera, zeinek, era berean, aukera emango baitu aurreko beste prozesu batzuekin alderatzeko eta informazioa Giza Baliabideen Saileko sistema informatikoetan integratzeko.

### **1.5 helburua. Hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa egitea enplegu publikoan.**

**1.5.1. jarduera.** Giza Baliabideen Sailak erabiltzen dituen testu, logotipo eta irudiak —paperezkoak, Udalaren webgunekoak, intranetekoak eta publizitate-euskarrietakoak— berrikusi eta, behar izanez gero, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera inklusibora egokitzea, Gasteizko Udalak egiten duen komunikazioan hizkuntzaren erabilera sexista izan ez dadin Berdintasun Zerbitzuak landutako jarraibidea oinarritzat hartuta.

<b>1.1 helburua. Giza Baliabideen Saileko berdintasunerako atala edo egitura sendotzea:</b>		
<b>1.1.1. jarduera.</b> Lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean berdintasun-planei buruzko artikulua bat sartzea, eta beste bat berdintasunaren sustapenari buruzkoa.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b>	
<b>1.1.2. jarduera.</b> II. Plana ezartzeko prozesua —Giza Baliabideen Saileko berdintasun-agentea dela medio— aurrera eramateko beharrezko diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea, hartara bertan jasotako konpromisoak gauzatzetik izan dadin.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.2 helburua. Plana dela eta, komunikazio- eta partaidetza-bideak ezartzea udal plantillarekin.</b>		
<b>1.2.1. jarduera.</b> Berdintasun-bloga mantentzea, informazioa aldian-aldian eguneratuz eta lehendik eskaintzen diren edukiak berrikusi eta hobetuz.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.2.2. jarduera.</b> Zabalkunde-kanpainak egitea, udal intraneta erabiltzeko modurik ez duten kolektiboak kontuan hartuz eta informazioa langile guztiengana iristen dela bermatuz.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	<b>Sail laguntzailea:</b> Berdintasun Batzorde Paritarioa
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.2.3. jarduera.</b> II. Planean jasotako alderdien antena hartzaile eta igorle izango diren pertsonen sarea sortzea, sailen artekoa.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	<b>Sail laguntzailea:</b> Berdintasun Batzorde Paritarioa
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.3 helburua. Udal langileak berdintasunaren arloan gaitzea, organizazioaren kulturaren aldakuntza sustatzeko.</b>		
<b>1.3.1. jarduera.</b> Udal langile guztiei genero-berdintasunaren arloko oinarritzko eta nahitaezko prestakuntza ematea.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.3.2. jarduera.</b> Lanposturako egoki diren prestakuntza-ekintzak aztertu eta gauzatzea.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.3.3. jarduera.</b> Gizonei zuzendutako berdintasunaren arloko prestakuntza-ekintzak egitea, Udaltzaingoan.	<b>Sail arduraduna:</b> Herritarren Segurtasuna	<b>Sail arduraduna:</b> Berdintasun Zerbitzua
	<b>Urtea:</b> 2023	
<b>1.3.4. jarduera.</b> II. Planaren jarraipenari lotutako Berdintasun Batzorde Paritarioan parte hartzen duten pertsonak berdintasunaren arloan gaitzea.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.3.5. jarduera.</b> Udal langileei prestakuntza eskaintzeaz arduratzen diren langileei zuzendutako gida didaktiko bat lantzea, non udal prestakuntzan genero-ikuspegia integratzeko beharrezko diren jarraibideak jasoko baitira —ikastaroetan eta bertan ematen den materialean hizkera inklusiboa erabiltzea, sexuaren arabera bereizitako datuak ematea eta abar—, Gasteizko Udalak egiten duen komunikazioan	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023	

hizkuntzaren erabilera sexista izan ez dadin Berdintasun Zerbitzuak landutako jarraibidea oinarritzat hartuta. Gida hori prestakuntza-prozesuetan parte hartzen duten guztiei banatzea.		
<b>1.3.6. jarduera.</b> Udal plantillako prestakuntza-arrakalaren analisia, desberdintasunak antzeman eta berdintasuna sustatzeko mekanismoak ezartzeko.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2023	
<b>1.4 helburua. Giza Baliabideen Sailaren prozesuetan, estatistika eta azterlanak berdintasun-printzipiora egokitzea</b>		
<b>1.4.1. jarduera.</b> Hautaketa-prozesuen jarraipena egiteko aukera emango duen informazio-sistema bat ezartzea, prozesuaren fase guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak lortze aldera, zeinek, era berean, aukera emango baitu aurreko beste prozesu batzuekin alderatzeko eta informazioa Giza Baliabideen Saileko sistema informatikoetan integratzeko.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	
<b>1.5 helburua. Hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa egitea enplegu publikoan.</b>		
<b>1.5.1. jarduera.</b> Giza Baliabideen Sailak erabiltzen dituen testu, logotipo eta irudiak —paperezkoak, Udalaren webgunekoak, intranetekoak eta publizitate-euskarrietakoak— berrikusi eta, behar izanez gero, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera inklusibora egokitzea, Gasteizko Udalak egiten duen komunikazioan hizkuntzaren erabilera sexista izan ez dadin Berdintasun Zerbitzuak landutako jarraibidea oinarritzat hartuta.	<b>Sail arduraduna:</b> Giza baliabideak	
	<b>Urtea:</b> 2022-2023-2024	



Enplegu-eskaintza publikoetako hautaketa-prozesuen inguruko jarduera guztiak bildu dira ildo estrategiko honetan, baita karrera profesionala sustatu eta garatzearen ingurukoak ere. Tradizionalki maskulinizatuta egon izan diren lanpostuetara emakumeak sartzea xede duten hainbat ekintza zerrendatu dira, baita emakumeak tarteko erantzukizuneko eta zuzendaritzako karguetara sartzea ere, edo egituraren barruko lanpostuen arteko mugikortasuna. Genero-estereotipoek zaildu egiten dute emakumeen lanbide-sustapena Gasteizko Udalean ere. Horregatik, sustapen- eta sarbide-oztopoak desagerraraztea da II. Plan honen epe luzeko helburuetako bat, baina, horretarako, zehatz-mehatz jakin beharra dago zein diren emakumeek enplegu publikoan aurkitzen dituzten mugapen horiek.

Soldata-arrakalari buruzko azterlanak eta datu eguneratuak erakusten dute emakumeen batez besteko soldata txikiagoa dela, kontratuen tipologia desberdina dela sexuaren arabera, eta lanaldi partzialak gehien bat emakumeei dagozkiela, eta, hortaz, sustapen-aukera gutxiago dituztela. Errealitate horren aurrean, azpimarratzekoa da tratu-berdintasuna bermatu beharra dagoela enplegurako sarbidean, lan-prestakuntzan, lanbide-sustapenean eta lan-baldintzetan, legearen aginduz, eta, horrenbestez, ekintza positiboek onspen politiko, juridiko eta soziala dutela, aukera-berdintasunaren benetako sustapena xede dutenez; kasu honetan, enplegu publikoan. Arrazoi beragatik, hautaketa-prozesuen genero-inpaktua ezagutzeko alde aurreko ebaluazio-txostenak egitera bideratuta daude bigarren ildo estrategiko honetan jasotzen diren jardueretako batzuk, eta esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatu sustatzera. Alderdi horiek munta berezia izango dute II. Plan honen indarraldian, aldi horretarako aurreikusita dagoen enplegu-eskaintza publikoa dela eta.

